

Dorleta Kortazar - Ispiluak

Kontalaritza eskola. Ahozko narrazio ikuskizunak.

Vital Fundazioa Kulturunea

A Aretoa

2024ko urriaren 14a

20:00h

Sarrera librea

Euskeraz



Vital Fundazioak ahozko kontakizunarekin lotutako zortzi ikuskizun programatuko ditu. Helburua honako hau izango da: ofizioa eta kontalaritza ikuskizunen sorkuntza sustatzea, jarduera horretan aritzen diren pertsonen lan-aukerak ematea eta profesional berrien prestakuntzan eta sustapenean laguntzea, publiko zalea eta aditua sortzeaz eta prestatzeaz gain.

Informazioa

Ispiluan beren buruari begiratu eta beste aldera gurutzatzeko ausardia izan duten emakumeen istorioek osatzen dute ISPILUAK. Gezurra, bortxa, mesfidantza eta beldurra gaindituz, estutzen dituzten loturetatik askatu eta zigorrak zigor, basoan aurrera egitea erabaki dutenak. Bizinahia eta beldurra, bizitza eta heriotza, gaua eta eguna, ametsak eta errealitatea... elkarri begira, elkarren isla, gure barruko (h)egietan oihartzun eginez. Leku askotan aurki ditzazkegulako gure islada itzuliko diguten ISPILUAK.

Dorleta Kortazar Alkoz

Eskoriatzan jaio zen (Gipuzkoa), Deba ibaiaren sorburutik oso gertu. Agian, horregatik behar izaten du noizean behin, errekek legez, itsasoraino bidea egitea.

Berba hitza maite du, berbak dira bere lanerako tresna eta horregatik zaintzen ditu tentuz.

Berak sortutako ipuinak, tradizionalak eta egile berrienak kontatzen ditu, helduentzat, haurrentzat eta nerabeentzat. Kontatzen dituenean, bestelako mundu bat posible dela sinesten duelako. Diote, begiekin eta batez ere irribarrearekin kontatzen duela, gozo, xamur, euskara garbian eta zainduan. Ipuinak kontatzea bezainbeste maite du entzutea, irakurtzea eta batez ere ikastea; estatuko eta nazioarteko ipuin kontalari erreferenteen eskutik jaso du formazioa.

Sarrera

Sarrera librea edukiera bete arte.

Hurrengo ikuskizunak

DATA	ARTISTA	HIZKUNTZA
2024 Urriak 14	Dorleta Kortazar Alkoz <i>ISPILUAK</i>	Euskera
2024 Azaroak 11	Boniface Ofogo Nkama <i>SIN FRONTERAS</i>	Gaztelania
2024 Abenduak 23	Ainara Iñiguez/Ane Arrugaeta <i>HEGALDIA</i>	Euskera
2025 Urtarrilak 13	José Campanari <i>CONTAR POR CONTAR</i>	Gaztelania
2025 Otsailak 3	Aitor Vinagret <i>OTSOEN MOKADUAK</i>	Euskera
2025 Martxoak 10	Carolina Rueda <i>CRECER MUJER</i>	Gaztelania
2025 Apirilak 14	Odei Arregi <i>ISILTASUNAREN KARTOGRAFIA</i>	Euskera
2025 Maiatzak 12	May Gorostiaga <i>NIRE MUNDUAN</i>	Euskera

Irudien galeria



Zabaldu